


## KOSTUAK

Hasiera batean, 3 urteetan aurreztutako dirua inbertituko dugu gure proiektuan. Leioako zona industrialean alokatuko dugu pabiloi bat. **Pabilioi** hori merkeenetako bat izango da, ez dugulako gehiegi arriskatu nahi, **1.350€** ordainduko dugu hilero harengatik. Kontuan izan behar dugu, **fidantza** ordaindu behar dugula, beraz **lehenengo hilabetean 2.700€** ordaindu behar izango ditugu. Behin lokala izanez gero **erreforma egin** beharko dugu gure beharrak asetzeko, baita **altzariak eta makinaria erosi**, **15.000€** inguru inbertituko ditugu bertan.

Beste aldetik, guretzat lan egingo duen jendeak kontratatu behar dugu. Lanpostuak betetzeko erabilitako dirua kostu handiena izango da. Gu geu saiatuko gara lan gehienaz arduratzen, informatikariak garela aprobetxatuz, baina, hala ere, jende gehiago kontratatu beharko dugu. Hala nola, administrariak, peoiak... **10 pertsona kontratatuko** ditugu hasieran eta guztira **20.000€** kostua suposatuko du (soldata, Gizarte Segurantzza,...).

Behin lekua eta langileak izanda, erlojua fabrikatzeko **materiala** erosiko dugu. Atal honetan **5.000€** inbertituko ditugu ekoizpena hasteko.

Hasten diren enpresa guztien bezala, hasteko tramite eta gastu minimo batzuk daude, zergak ordaintzeko eta abar. Guk **3.500€** aurrikusi ditugu. Beraz, **guztira 46.200€**.



Behin negozioia martxan dagoenean beste motatako kostuak ditugu. Alde batetik kostu finkoak, hau da, ekoizpenaren bolumenarekin erlazionatuta ez dauden gastuak.

**Pabiloiaren gastuak**, alde batetik alokairua, **1.250€**, eta beste aldetik **hornidurak** (ura, elektrizitatea, Interneta, telefonoa,...) eta konponketarako gastuak barneratzen ditu. Batez besteko gastua, **1.000€** izango da.

**Langileei** dagokionez, **2.000€** izango da kostua langileko.

**Publizitatean** ere diru nahiko inbertituko dugu, gure produktua ahalik eta gehien hedatzea baita gure asmoa. Gutxi gora behera **1000€**

Baita aseguruak ere egongo dira kostu finkoen barruan eta banku zerbitzuak eta abar.

Beste aldetik, kostu aldakorak, hau da, ekoizpenaren bolumenarekin erlazionatuta dauden gastuak.

Kostu aldakor nagusia **lehengaien** erosketa da. **Hasierako gastua 5.000€** izan zen baina hilabeteak pasa ahala gure asmoa ekoizpena bikoiztea da, beraz, lehengaiak ekoizteko gastua handituko da denboraren poderioz. Gure **helburua 10.000€** gastatzea da arlo honetan.

**Garraiatzeko gastuak**: gastu hau ekoizpenarekin lotuta dago. Hainbat eta lehengai gehiago behar orduan eta kostu gehiago garraiatzeko. Gauza bera gertatzen da amaitutako produktua bezeroari eramateko gastuarekin.

Orain arte aipatutako kostuei gehitu behar zaizkie bestelako kostuak. Gure asmoa **langileei aseguru pribatu bat kontratatzea** da, haien baldintzak hobetzeko. Baita, **gure enpresak sortzen dituen hondakinak birziklatzeko** gastuak.